

AURREKONTUEN EZTABAIDA

Lehenengo eta behin, eta dauden zalantzak argitzeko asmoz, ez daukat inongo arazorik nire diskurtsoaren hasieran iragartzeko zein izango den 2011ko aurrekontuei gure taldeak emango dien bozka: Kontra bozkatuko dugu. Aralarrek ez ditu ahalbidetuko aurrekontu hauek.

Ezkertzalea eta Abertzalea den alderdi bat gara eta aurrekontu hauek, ez dute ez ezkerretik, ezta abertzaletasunetik ere nondik heldu.

Ezkerretik: Ikuspuntu sozial batetik, aurrekontu murriztaileak diren heinean, aurrekontu antisozialak dira. Ikuspuntu abertzale batetik, berriz, gure herriaren nortasunaren aurka doaz eta, gainera, *elefoboak* dira.

Hortaz, sorpresa gutxi ezta gure bozkarekin? Gobernuak argi zeukan gure bozka zein izango zen eta edukietan luze azalduko ditugu gure kontrako bozkaren arrazoiak; baina horretaz gain, adierazi beharra daukagu politikan formak ere garrantzitsuak direla, eta parte-hartzea bere ezintasuna estaltzeko erabiltzen duen gobernu honek, berriro ere formetan kale egin du.

Kale egin du, parte-hartzearekin eta adostasunarekin ahoa betetzen zaizuenean. Eta horren beste adibide argi bat izan genuen joan zen ostiralean, lehendakariak izan zuen *papeloiarekin* lege egutegia zergatik bete ez duten azalpenak ematera etorri zenean; ze, hitzetatik ekintzetara pasatu behar da, eta errealitatea guztiz kontrakoa da kasu honetan. Gobernu honek aurrekontuen legea onartzeko orduan bilatu duen parte-

hartzea eta adostasuna hutsaren hurrengoa izan dira. Lehendakariaren patua bere eskuetan duen alderdiak soilik parte hartu du.

Baina goazen edukietara;

Lehenengo eta behin, aurrekontuak aztertzeko orduan testuinguru ekonomiko-soziala kontutan hartzea garrantzitsua da; ez aitzakia bezala erabiltzeko, baizik eta ahalmena edukitzeko irakurketa on bat eginez gero, erantzunak edo irtenbideak bilatzeko.

Eta horretarako egoeraren irakurketa ezinbestekoa da, baina irakurketa egokia, jakina. Ezin dena esan da, ekonomia sailburu jaunak esan zuen bezala, kapitalen merkatuen irentsi nahiak eraman gaituela egoera honetara eta, uztea, aztertu gabe zergatik utzi diegun kapitalen merkatuei egoera horretara eramatea gure ekonomia. Ze, hemen tartean, erabaki politikoak egon dira eta buru belarri jarraitzen duzuen Zapatero jaunak, zer esan handia izan du erabaki horietan. (lazkoz)

Eta egoera aztertu ondoren, egoera benetan kezagarria dela onartu beharra dago: enplegu egonkorra sortzea ia ezinezkoa da, hazkundera motela edo negatiboa da, langabezi tasak igotzen segitzen du (egun 133.000 baino gehiago dira, eta horietako % 36ak ez du inolako saririk jasotzen) eta egoera oso latza da. Horren aurrean, egoera aldatzeko proposamenak aurkeztu behar dira. Eta egoera horren aurrean, ez dakizue zer egin-eta, aurrekontuak koadratzera mugatu zarete.

A/ Ezkerretik: Ikuspuntu sozial batetik murriztaileak diren heinean antisozialak dira.

Eusko Jaurlaritzak 2011 urterako aurkeztu duen aurrekontu-proiektuaren ezaugarri nagusia bere joera murriztailea da. Murrizketak sail guztietan gertatzen dira; Herri Lanak eta Garraioa salbuespenak dira, AHTri emandako bultzadagatik, hurrenez hurren.

Eta, horren ondorioz, Administrazioaren esku dauden eta herritarren ongizatean eragin zuzena duten zerbitzu publikoetan eraginak oso nabariak dira: Hezkuntzan jaitsiera %3,3koa da, Osasunean %3,5ekoa eta Enplegua eta Gizarte Gaietan, enplegu politika aktiboak kenduta, %15ekoa.

Merkatuen presiopean, zorra eta defizit publikoa jaisteko eta kontrolatzeko Europak eta Estatu espainiarrak hartutako bide bera jarraitzea erabaki du Jaurlaritzak. Gure egoeraren berezitasunak kontuan hartu gabe. Jaurlaritzak Estatu mailan diseinatu eta indarrean jarri diren neurrien jarraipen hutsa egitea erabaki du: langileen soldatak jaitea, zerbitzu publikoak ahultzea eta horietan behin-behinekotasuna bultzatzea, arlo pribatuari ateak zabaltzea, batez ere osasun arloan... Azken finean, defizitaren aurkako politikak lehenestea erabaki du, krisialdi garaian ekonomia suspertzeko, enplegua sortzeko eta gizarte gastua indartzeko neurriak bultzatu beharrean. Erabaki politikoa da, eta kasu horretan hemen ordezkariak duten alderdi politiko nagusiek, EAJ, PSE eta PPK bat egiten dute.

Baina aukera bakarra bezala saltzea nahi duzuen hori, ez da bakarra; ez, behintzat, diru-sarrereren eztabaida ere egiten badugu eta horixe nahi genuke guk.

Norabidea aldatzeko bide zuzenena eta eraginkorrena zerga politikan aldaketa nabarmenak egitea da. Hala ere, adierazpen hutsez haratago, arlo horretan ere PSEren eta PNVren arteko aliantza estrategikoak indarrean segitzen du: sinaturiko egonkortasun hitzarmena edo Zerga Koordinazioko Organoak hartzen dituen erabakiak. Errenta altuenak, enpresak edo kapitala zergapetzeko borondatea izan beharreak, iruzur fiskalaren aurka (EAEn BPGren %15-20koa da, 10.000 milioi ingurukoa) borrokatzeko neurri tinkoak adostu beharreak, egungo krisi egoera konponbidean jartzeko erabat ez-nahikoak diren beste neurri batzuk hartu dituzue, langabetuei edo pentsiodunei egindako kenketa urria, kasu. Edo azken boladan Zabaleta andereak martxan jarri duen *kruzada* gizarte laguntzak jasotzen dutenen kontra. Ze gizarte laguntzak kobratzen dutenak gizartearen aurrean gaizkiletzat jartzeko orduan, ez dizugu entzun gobernuari iruzur fiskalaren kontra neurri eraginkorrak eskatzen.

ARLOKA

Inbertsioak. Atal hori eredugarria da eztabaida gastuen arloan finkatzen badugu eta gauzak beste era batera egin litezkeela ikusi.

Nahiz eta krisi garaian egon, dirua egon badago eta hala erakusten dute inbertsioetarako diru-partidek; baina hor ere lehentasunak ondo zehaztu behar dira.

Zuen aurrekontuen proposamenean, Inbertsioak guztira, 598,7 milioi dira (iaz baino %6,1 gutxiago izan arren). Horien ia erdia AHT finantzatzeko erabiliko da (298,6). Horrela, ongizatea hobetzeko zuzendutako inbertsioak oso eskasak dira, beharizan sozialen eta zerbitzuen kalitatearen kalterako.

Argi dago zuen lehentasuna Abiadura Handiko Trena dela eta hori, jaun-andreok, kezkatzeko modukoa da. Batez ere jarraitzen dugunean jakin gabe zer nolako erabilpen soziala izango duen. Horrela ezin da garraio azpiegitura baten alde hain sutsuki egin. Beraz, gutxienez arduratzeko modukoa bada inbertsioetarako dagoen diru publikoaren erdia bertan gastatzea erabaki duzuenean.

Y nos vendrá la señora Madrigal y nos dirá que como el TAV proviene de un crédito comprometido con el estado, en virtud de la adicional cuarta de la Ley de concierto economico, no podemos proponer la retirada de ese

gasto. Estando en contra como estamos de ese proyecto, claro que nos sentimos legitimados para proponer financiar otros gastos con ese dinero. Pero es que además, desde un punto de vista económico, nos preocupa, más si cabe teniendo en cuenta que lo que tenemos en Ajuria Enea es un delegado del gobierno de Madrid que aplica miméticamente y sin rechistar las medidas que desde Moncloa le indican; pues nos preocupa, y mucho, que el estado español se gaste ese dinero, porque luego nos vienen encima medidas como la reforma laboral, la congelación de las pensiones, retraso de la edad de la jubilación, bajada sueldos de funcionarios... Así que miren si tenemos que estar preocupados de que el estado español gaste por encima de sus posibilidades. Tal y como dijo el ministro Blanco, refiriéndose a la alta velocidad.

Baina ez hori bakarrik. Ze gainera AHTk gastu propioa ere badauka aurrekontuetan: 25 miloi € zehazki esateko; beste trenbideetarako inbertsioek, gure eskualdetako langileak eta ikasleak herri batetik bestera garraiatzen duten trenek, metroa barne 18,8 milioiko dutenean. Beraz, atera kontuak.

Era berean, eta lehentasuna Madriletik Bilbora 3 ordutan bidaiatu ahal izatea denez, eskualde guztietan Osakidetzak ezin du kalitatezko lehen arreta eta arreta espezializatua bermatu ezta akutu, azpi-akutu eta kronikoentzako azpiegitura duinik eduki. Gure eskola publikoak, kasu hoberenetan eraikin proiektu bat onartuta dute batzuek, murriztuta ikusiko dute euren proiektua; beste guztiok itxaroterak.

Hori da errealitatea. Inbertsioak egiteko dirua egon badago, baina testuinguru ekonomiko horretan lehentasunak ondo zehaztu behar dira; ze, jakina, denerako ez dela heltzen, baina zuek sozialistok, lehengokoek bezala, sozialak ez diren inbertsioetara bideratzen duzue gastua.

Erasoa langile publikoei. Espainiar Estatuak markaturiko irizpidea jarraituz, 2011rako administrazioaren menpe diharduten langileen soldatak izoztuko dira. 2010ean soldaten-izozketa urtearen erdialdean gertatu zenez, datorren urteko soldaten jaitsiera altuagoa izango da. Gainera ezin da ahaztu 2009ko azaroan Mahai Orokorrean sindikatu garrantzitsuenekin (ELA, CCOO eta UGT) lorturiko akordioa ezerezean geratu dela; eta hori, oso larria da.

Beste alde batetik, indarrean dagoen Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren Jarraibidearen arabera, gastu publikoa murrizteko asmoz, hainbat neurri martxan jarri dira, hala nola, 6 hilabetetik beherako ordezkapenik ez baimentzea, zeregin-pilaketa dela-eta kontratu berririk ez egitea, ezinbestekoak ez diren lanpostuak amortizatzea, plaza berririk ez sortzea... Funtzio Publikorako propio egindako jarraibide hori, ñabardura batzuekin, beste hainbat sailetan aplikatzen ari da, hezkuntza edo osasunean, kasurako. Gehiengo sindikalak salatu duenez, neurri horiek sektore publikoaren aurkako eraso zuzena izateaz gain, milaka kalitatezko lanpusturen galera eta zerbitzu publikoen kalitatearen gainbehera suposatzen dituzte, azken horien pribatizazioari ateak zabalduz.

Gizarte babesaren eznahikotasuna. Langabezia, pobrezia eta gizarte bazterketaren kontrako borrokaren bilakaera kezkarriaren aurrean, Jaurlaritzak arlo horretan ere murrizketak ezarri ditu, apalak badira ere. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten lagunen kopurua urtebetean %14 igo den arren (2009ko urritik 2010ko urrira), iaz baino 1,4 milioi gutxiago daude aurreikusita (280 m.). Etxebizitzarako Prestazio Osagarrian ere murrizketa gertatzen da, 1,1 milioikoa (42 m.); datu oso esanguratsua, bestalde, alokairuan etxebizitza lortzeko dauden zailtasun ekonomikoak ikusita.

Gizarte-larrialdietarako Laguntzak bere horretan mantendu dira (17,3 m.), nahiz eta jakin aurreikusita dauden beharrianetarako kopuru hori ez dela batere nahikoa; are gehiago, ez da kontuan hartu 2010ean 6,7 m. gehituta ere ez dela beharrak asetzeko nahiko izan. Asmo horien, eta laguntzak jasotzeko irizpide berrien iragarpenen, atzean etorkizunean eskubide subjektiboak ez diren laguntza horiek murrizteko borondatea dago.

Arlo horretan aurrekontuak mantentzea ez litzateke nahikoa izango, bizi dugun egoera babes sozialaren eskaria igo egiten delako, nabarmenki gainera. Eta murrizketa ezker ikuspuntu batetik iraingarria da.

Osasunaren egoera larria. Ikuspegi publiko, estrategiko eta presupuestario batetik, funtsezkoa den gastu publikoaren arlo horretan, Europako herrialdeekiko dagoen aldea oso azpimarragarria da; 2,1 puntukoa (Europakoa BPGren %6,5 eta EAEkoa BPGren %4,4), 2007ko azken datuen arabera. Espainiar Estatuaren azpitik (BPGren 6,1) ere badago kopuru hori. Horrela, zenbaki gordinetan, Europako batz

bestekoa izateko, osasunean 1.404 milioi gehiago gastatu beharko genituzke. Aldiz, aurtengo gastua 3.400 milioi direla kontuan hartzen badugu, iaz baino %3,5 gutxiago dela igarriko dugu eta BPGean, berriz, iaz baino 0,4 gutxiago dago; sail horretan gertatzen ari den gainbeheraren adierazle da hori eta horren egoera larria begi-bistan dago.

Murrizketak agerian geratu dira aurten, asteburuetan lehengo arretaren berrantolaketa bezalaxe aurkeztu den plangintza, zerbitzu gehiago privatizatzeke erabilgarria izan den murrizketa bat izan da. Honezkero asteburuetan hainbat osasun zentro itxi egin dira, eskualde batzuetan osasun zerbitzuaren irisgarritasuna zaildu da eta EAG-PACen langileen lan baldintzak okerragotu dira. Beste aldetik, kontzertazioaren bidez egiten den zerbitzuen privatizazioarekin bukatzeko inongo asmorik ez daukala argi utzi du sailburuak: aurten ere 253 m. bideratuko dira kontzertaziorako. Beste iragarki batzuk ere aipagarriak dira; hala nola, arreta presentziala birtualengatik ordezkatzeko azpikontratuko den O-sarean sistema, pediatriaren egoera, errezeten kopagoa eta abar. Kalitatezkoa eta unibertsala izan beharko lukeen osasun zerbitzu publikoaren kontrako eraso zuzenak, guztiak ere.

Baina murrizketak giza baliabideen arlora ere heltzen dira. Era horretan, 2011 urterako lan eskaintza publikoa 2.614 lanpostura mugatzen da. Zenbaki horrek Mahai Orokorrean sinatutakoak baino 1.200 lanpostu gutxiago suposatzen du. Zehazki, gobernuak sinatu zuen konpromisoak, 2010rako 1.900 lanpostu eta 2011an beste horrenbeste jasotzen zituen.

Guztira, 3.800 lanpostuko berri, bi lan eskaintza publikoetan. Bada, iragarritakoarekin, garbi geratu da 2010ean egin ez den lan eskaintza ez duela 2011koak konpentsatuko, 2.600 lanposturen eskaintza oso urrun geratzen baita hitzartutako 3.800 horietatik.

Etxebizitza. 2011ko aurrekontu-proiektuan jasotako zuzkidura 162,2 milioi eurokoa da, iaz baino 12,9 m. gutxiago eta BPGren %0,24a dena. Oso zenbaki ez-nahikoak, dagoen eskaria eta premia kontuan hartuta. Atzo argitaratutako soziometroaren arabera, momentu honetan ekonomia eta enpleguaren atzetik 3 arazo larriena da herritarrentzat etxebizitza, baita terrorismoaren aurretik ere.

Gainera, zenbaki gordinetan, kopuru hain urria izateko 2005. urteraino atzera egin behar dugu, eta, BPGri dagokionez, antzeko pisua duen aurrekontua topatzeko 2002. urteraino. Gainera, gobernuaren apustua jabetza jarraitzen du izaten. Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea eta Etxebizitza Legea Legebiltzarrerara ekartzeko kapaza izan ez den arren, aurrekontuen legean bere hamargarren xedapen gehigarrian etxebizitza arloan berme eta konpentsazioko funtsa sortzen du. Funtsa horren helburu nagusia da sustatzaile pribatuei diru sarrerak ziurtatzea, babes ofizialeko etxebizitzak jabetzan egiten dituztenean.

Ezker ikuspuntuarekin bukatzeko, Lurralde eredia. Lehengo eta gaur egungo gobernuak ezartzen ari diren lurralde antolaketa ereduak aurrekontuetan ere bere isla dute. Azpiegituren kasuan, lurralde antolaketaren planifikazio eza agerian geratzen da. Garraio azpiegituraz josita dagoen lurralde txiki honetan (7000 m²), aurrekontuetan apustu

garbia zein den argi ikusten da: Abiadura Handiko Trena, Pasaiako Kanpoko portua edota Hondarribiko aireportua bezalako en ald e gitea. Azpiegitura horiek inguruarekiko duten eragin suntsitzaitetik aparte, indarrean dauden Lurralde Antolaketako Artezbideetan ez daude jasota gaur egun gauzatu nahi duten bezalaxe.

Eztabaida sozial barik, eta ondo planifikatua dagoen lurralde eredu desantolatu baten bidez, eskualdeak erdigune ekonomiko sozialetik kendu dira, Euskal-Hiriaren hiriguneen orde z. Artezbideen inguruan lurralde antolaketari buruzko eztabaida sakon bat zabaltzea premia zkoa da lurralde urria duen herri batean, eta eztabaida hori zabaldu eta osatzen den bitartean, gelditu egin behar dira azpiegitura erraldaien egitasm o guztiak edo, behintzat, oraindik indarrean dauden artezpid eek esaten dutenarekin lotu.

EAEren kasuan, hurrengo lehene stea garrantzitsua da: lurraldea artifizializatu gabe mantentzea, lur berrien erabilera zuhurki mugatzea, urbanizatuta dauden lurzoruak berrerabiltzea, sortzen diren hiri kokalekuak bilduak izatea lortzea eta ez sakabanatuak, lurraldeak dituen ezaugarri zehatzak kontuan hartzen dituzten jarduera ekonomikoak eta zerbitzuak bilatzea, gero eta bereziagoak bilakatzen diren landa-gune eta natura-guneak babestu eta iraunaraztea, erabili gabeko lurrak edo erabilera biguneko lurrak gordetzea, nekazaritza eta abeltzaintzakoak, basoak, padurak, larreak, kostaldeak, mendiak... Azken, finean, ditugun natura ondasunak eta fisikoak ondo zaintzea Euskal Herri txiki honentzat

lurralde antolamendu eredu zehatza definitzerako orduan jarri beharreko premisa da hori.

B/ Ikuspuntu abertzale batetik: herri honen nortasunaren aurka doaz eta elefoboak dira. Aurrekontuen hasierako proposamenarekin nahiko argi geneukan, baina alderdi sozialistak eta alderdi popularrak hitzarturiko zuzenketekin inongo zalantza izpirik ez zaigu geratzen. Argi utzi dute, eurentzako Euskal Herria ezberdina dela: Espainian ezinezkoa dena, Hego Euskal Herrian, EAEn eta Nafarroan, erabat ohiko dutela. Alderdi popularra eta sozialista ez ditu ezkerrak batzen, unionismoak batzen ditu.

Euskara adibide gisa: lazko aurrekontuetan noranzko desegokia markatzen zuten partidak ez dira zuzendu, baizik eta bikoiztu: 2011ko aurrekontuetan **A ereduko kontzertuetarako** iaz zabaldu zen partida zortzi milioi eurora igo da aurten, nahiz eta jakin A ereduak ez duela erkidegoko hizkuntza ofizial biak jakiteko balio, nahiz eta jakin ikasleek hizkuntza ofizial biak jakiteko duten eskubidea urratu egiten zaiela A ereduko ikasleei. Jaurlearitzak ez bakarrik ez du ahaleginik egiten hizkuntza eredu integratzaileak lehenesteko, baizik eta erkidego honetako hizkuntza ofizial biak ikasteko balio ez duen A eredua saritu egiten du, nahiz eta jakin, gobernuko bozeramaleak eta Hezkuntza sailburuak berak hainbatetan esan izan duten legez, ez duela elebitasuna ziurtatzeko balio. Zelan lortu horrela sailburuak hainbeste desiratzen duen bikaintasuna?

Horretaz gainera, **irakasleak elebidunak izan daitezten bilatzen duten programek ere murrizketa** jaso dute. Bitxia da, euskal gizarteak, aitek eta amek, hezkuntzan euskararen aldeko apustu garbia egiten dutenean, Jaurilaritzak horri erantzuteko baliabideak murriztea. Horren adierazgarri izan daiteke Iraleren ordezkapenetarako aurrekontua herenean jaitsi izana, edo ikastetxe kontzertatuena hizkuntza normalizaziorako hainbat partidak jaso duten jaitsiera.

Maila sinbolikoan, aipagarria da hala Nafarroa Oinez nola Herri Urrats diru laguntza barik geratu izana, aurten bigarren aldiz.

Hizkuntza politikari dagokionez, alderdi bi bereizi behar dira. Bata kontzeptuzkoa da, hizkuntza politikarako helburuen artean hizkuntzen bizikidetasuna aipatzen da, hiztunon artekoa. Distantziakidetasuna da hori, eta planteamendu desegokia maila berean ez dauden hizkuntza-errealitateez dihardugulako.

Diru-partida zehatzei dagokienez, iazko aldaketak txarrerako izan ziren, eta aurten ez da okerreko joera hori zuzendu. Aipagarria da euskara askatasunean lelo faltsu eta engainagarria darabilen gobernuak euskaraz ikasten ari eta maila gainditzea lortzen duten ikasleentzako beka-partida %20 jaitsi izana. Berriz ere, murriztu egin da HPSren diru-partida, eta euskaltegien modulazioa bera zalantzan jarri da. Aurten ere, diru-partida zehatzei begiratzen badiegu, oro har, atzerakada da ikusten duguna:

elkarteei egiten zaizkien diru-laguntzetan, guztietan, murrizketa dago, kasu bakarren batean izan ezik. Hizkuntza eskubideak behin eta berriro ahotan darabilen gobernuak ahaztu egiten du hemen urratzen diren hizkuntza eskubideak euskaraz jardun gura duten herritarrenak direla.

Normalizaziorako urrats berririk ez daiteke espero aurrekontu hauetatik: aldaketa iragarri zigun gobernuak ez dio ekarpen propiorik egin hizkuntza normalizazioari. Iazko bidetik datoz aurrekontuok, eta iazko bidea bide txarra zen eta da. Jaurlaritzaren aurrekontuetan, euskarak behar duen bultzadarako irizpide argirik ez dago. Alderdi popularrak euskara herri honetako bigarren hizkuntza dela dio, eta horixe darie Jaurlaritza sozialistaren aurrekontuei.

Giza eskubideak (Aintzaineren diskurtsoa hartu dot ez baitut testua): Bixer goizean landuko dot hau.

Gauza bera esan dezakegu giza eskubideen alorrean. Orain arteko ibilbidean sakontzeko asmoa agertzen da aurrekontu hauetan, hau da, alde bakarreko begirada, sufrimenduaren ikuspegi bakarra.

Eta noski, premisa horretatik abiatuta kezkarria motibazio politikoko indarkeriak sortaraziko biktimen inguruan gertatzen ari dena eta aurrekontuetan isla duena edo hobe esanda ez duena.

Motibazio politikoko biktimeneztat diru partida bat bera ere ez duzelako jaso. Zer esan nahi du horrek? Zer ulertu behar dugu? Hilaren batean izan genuen txostena hemen eta guztiok, ustez behintzat, nik hori uste nuen, erabaki genuen aurrera egitea. Ze txosten horrek erantzuten zion

Parlamentuko eskari bati; eta ez zuen bakarrik txostena eskatzen, ez; erreparazio neurriak ere eskatzen zituen. Eta pentsatzekoa zen erreparazio neurriak eskatzen zituenez, partidarik egongo zela aurrekontuetan; baina, jaun-andreok: ezta sortzeko ere!.

Pentsatzen genuen, desadostasunak desadostasun, oinarrizko adostasun bat geneukala gai honen inguruan, baina zuen jokaera PPren presioen aurrean guztiz inkoherentea izan da. Gobernuak, PPren eskutik, apurtuko ote du oinarrizko adostasuna gai honen inguruan?